

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5719

*ERABAKIA, 2017ko azaroaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarena. Honen bidez, ente publikoaren 2017. urteko lekualdatze-lehiaketarako irizpide orokorrak onartzen dira.*

Administrazio Kontseiluak erabaki hau hartu du Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5 eta 12.5 artikuluetan eginiko aurreikuspenaren arabera eta, izaera orokorrekin, Ente Publikoko langileen esparruan hainbat araudik jasotzen dituzten arauen arabera: aipatutako dekretuak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak. Azken horrek bere 37.1 artikuluko c) atalean, negoziatio kolektiboko gaien artean, giza baliabideen horniketaren arloko irizpide orokorrak jasotzen ditu.

2017. urtean, Osasuneko Mahai Sektorialak negoziatio-prozesuari hasiera eman zion eta 2017ko ekainaren 23an SATSE, SME eta UGT sindikatuekin aurreakordioa sinatu zuen.

Aipatutako aurreakordioak, beste hainbat gairen artean, 2017. urtean lekualdatze-lehiaketa bat egitea aurreikusten du. Bertan jasotzen da datorren Enplegu Publikoaren Eskaintzan eskainiko diren lanpostuen % 90 deituko liratekeela eta deialdi ezberdin horien oinarriak aurtengo azken lauhilekoan zehar argitaratu behar direla.

Era berean, aipatutako Osasuneko Mahai Sektorialeko aurreakordioan adierazten da 2017. urterako lekualdatze-lehiaketaren deialdiak Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren erabaki berri bat onartzea eskatuko duela, 2016ko uztailaren 18ko Erabakia ordezkatzeko; hots, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak ente publikoaren 2016. urterako lekualdatze-lehiaketaren irizpide orokorrak onartzeko hartutakoa ordezkatzeko (2016ko abuztuaren 8ko EHAA, 149. zk.).

Aipatutako 2016. urteko lekualdatze-lehiaketa ez zen deitu. Hortaz, 2016ko uztailaren 18ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren erabaki hori integratuta gelditzen da erabaki honetan, eragin guztiekin, baita baremazioari dagozkienekin ere. Ondorioz, 2016ko lekualdatze-lehiaketan eskainitako lanpostu-kopurua 2017ko lekualdatze-lehiaketan txertatuta gelditzen da.

Azkenik, adierazi behar da 2017ko urriaren 31n Osasuneko Mahai Sektorialean akordio bat lortu zela SATSE, SME eta UGT sindikatuekin. Horren arabera, 2017. urterako Osakidetzako lekualdatze-lehiaketan lanpostuak eskaintzeko eta destinoak esleitzeko irizpideak eta horren oinarriak ezartzen dira.

Hori dela eta, adierazitakoarekin bat etorritz, zuzendari nagusiaren proposamenez, eta ente publikoaren estatutuak 8.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, osakidetzako administrazio kontseiluak hau

## ERABAKI DU:

Lehenengoa.– 2017. urtean lekualdatze-lehiaketa bat deitzea, Osakidetzako zerbitzu-erakunde ezberdinetako langileen behin betiko borondatezko mugikortasuna ahalbidetzeko, 2017ko ekainaren 23an sinatutako Osasuneko Mahai Sektorialaren aurreakordioan eta baita 2017ko urriaren 31n Osasuneko Mahai Sektorialeko akordioan ere horri buruz aipatutako irizpideekin bat etorritz.

Behin betiko borondatezko mugikortasuneko prozesua lehiaketa bidez ebatziko da. Dagokien kategorietako lekualdatze-lehiaketa arautuko dituzten oinarriek honakoak zehaztuko dituzte: parte hartzeko baldintzak, eskainitako destinoak, prozedura eta merezimenduen baremoa.

Lekualdatze-lehiaketa abiarazteko beharrezko jardunak erabaki honek eta hori garatzeko emango diren oinarrien ebazpenek birtualtasun juridiko egokia lortu eta berehala jarriko dira martxan.

Bigarrena.– Osakidetzako 2017ko lekualdatze-lehiaketan sartuko diren kategoriak zehazteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira horien deialdi ezberdinak.

Deialdiak honela multzokatuko dira:

- 1.– Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldea (Arreta Espezializatua).
- 2.– Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldea (Lehen Mailako Arreta).
- 3.– Diplomadun sanitarioen lanbide-taldea.
- 4.– Tekniko espezialista sanitarioen lanbide-taldea.
- 5.– Teknikari laguntzaile sanitarioen lanbide-taldea.
- 6.– Kudeaketa eta zerbitzuetako langileak.

Osakidetzako 2017ko lekualdatze-lehiaketako deialdi honetan, 3.004 destino eskainiko dira. Dokumentu honen eranskinean zehazten da horien banaketa lanpostu funtzionaletan.

Aipatutako destino-kopurua zuzendu eta aldatu ahalko da, edozein akats antzemanaz gero edo sortutako antolaketa-arrazoiengatik, epaiak exekutatzegatik, langileak lanera itzultzeko direlako edo antzeko beste edozein egoerarengatik.

Horrela bada, zuzenketa eta aldaketa horiek lanpostuak betetzeko deialdi baten bidez egingo dira.

Hirugarrena.– Lekualdatze-lehiaketa deialdi ezberdinetako oinarriek zehaztutakoaren arabera garatuko da.

Etengabeko prestakuntzari dagokion merezimendu-baremoaren atalari lotuta, erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioaren arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa plan baten barrukoak ez badira.

Laugarrena.– Derrigorrezko mugikortasun-prozesua izan duten langile finkoek haien lanpostu funtzionalari dagokion destinoa lortzeko duten lehentasuna errespetatuz, prozesu horiek araudi espezifikoak hala ezarri duenean lekualdatze-lehiaketa honetarako, baldin eta lehiaketa hau haien lanpostu berrian benetan lanean hasi direnetik deitu duten lehenengoa bada eta behin betiko barne-mugikortasuneko prozesu batean lehentasun horretaz baliatu ez badira.

2017ko azaroaren 27a, astelehena

Lehentasunezko eskubide horretaz behin bakarrik baliatu ahalko dira, ezohiko izaera izango du eta interesdunek alegatu beharko dute lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko eskabidea formalizatzen dutenean.

Esleipena egiteko, lekualdatze-lehiaketan ezarritako baremazio-irizpide berari jarraituko zaio, baina langile horien lehentasuna errespetatuko da.

Bosgarrena.– Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du 2017ko lekualdatze-lehiaketan sartuko diren lanpostuak hautatzeko irizpideak zehazteko.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia arduratuko da behin betiko borondatezko mugikortasun-prozesuen deialdia kudeatzeaz. Agindu horren arabera, lekualdatze-lehiaketa arautuko duten oinarriak jasoko dituzten ebazpenak idatzi, izapidetu eta eman beharko ditu, deialdian sartu beharreko lanpostuak zehaztuko ditu, epaimahai kalifikatzaileak esleituko ditu eta deialdiak eta destinoen esleipena ebatziko ditu. Kategoría baliokideak eta erreferentziako kategoriak martxoaren 13ko 184/2015 Errege Dekretuaren eranskinean jasotako katalogoak ezarritakoak izango dira.

Zazpigarrena.– Erabaki honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentea,  
JON DARPÓN SIERRA.

2017ko azaroaren 27a, astelehena

## ERANSKINA

## 2017KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAKO LANPOSTUEN

KATEGORIAK	LANPOSTU FUNTZIONALA	GUZTIRA
F. Espezialista Mediko-Teknikoa	Biokimika Klinikoko Fem-Tek	1
	Biologiako F. Teknikoa	2
	Farmaziako F. Teknikoa	4
	Ondotologiako F. Teknikoa	8
	Alergologiako Fe. Medikoa	3
	Anatomia Patologikoko Fe. Medikoa	10
	Anestesia eta Bizkort. Fe. Medikoa	39
	Angiol. eta Kir. Baskularreko Fe. Medikoa	8
	Digestio-Aparatuko Fe. Medikoa	26
	Kardiologiako Fe. Medikoa	22
	Kir. Ortop. eta Trauma. Fe. Medikoa	46
	Kirg. Kardiobaskularreko Fe. Medikoa	3
	Kirg. Ork. eta Dig. Apar. Kirg. Fe. Medikoa	28
	Ahoko eta Aurpegi-Masaileko Kirg. Fe. Medikoa	1
	Kirg. Pediatrikoko Fe. Medikoa	6
	Kirg. Torazikoko Fe. Medikoa	3
	Kirg. Plast., Est. eta Konp. Fe. Medikoa	5
	Derm. Mediko-Kirurg. eta Ben. Fe. Medikoa	14
	Emergentsietako Fe. Medikoa	7
	Endokrin. eta Nutrizioko Fe. Medikoa	11
	Gaixotasun Infekz. Fe. Medikoa	3
	Hemat. eta Hemot. Klinikoko Fe. Medikoa	2
	Hemat. eta Hemot. Fe. Medikoa	19
	Etxeko Ospitalizazioko Fe. Medikoa	5
	Medik. Fisikoko eta Errehab. Fe. Medikoa	9
	Medik. Preb. eta Osasun Pub. Fe. Medikoa	4
	Laneko Medikuntzako Fe. Medikoa	4
	Medikuntza Intentsiboko Fe. Medikoa	8
	Barne-Medikuntzako Fe. Medikoa	30
	Medikuntza Nuklearreko Fe. Medikoa	2
	Nefrologiako Fe. Medikoa	9
	Pneumologiako Fe. Medikoa	17
Neurologiako Fe. Medikoa	3	

2017ko azaroaren 27a, astelehena

KATEGORIAK	LANPOSTU FUNTZIONALA	GUZTIRA
<b>F. Espezialista Mediko-Teknikoa</b>	Neurofisiologia Klinikoko Fe. Medikoa	3
	Neurologiako Fe. Medikoa	14
	Obstet. eta Ginekologiako Fe. Medikoa	46
	Oftalmologiako Fe. Medikoa	23
	Onkolog. Erradioterap. Fe. Medikoa	6
	Onkologia Medikoko Fe. Medikoa	5
	Otorrinolaringologiako Fe. Medikoa	17
	Osp. - Onkolog. Pediat. Fe. Medikoa	1
	Ospit. - Larriald. Pediat. Fe. Medikoa	3
	Ospitaleko Pediatriako Fe. Medikoa	21
	Psikiatriako Fe. Medikoa	43
	Haur Psikiatriako Fe. Medikoa	9
	Erradiodiagnostikoko Fe. Medikoa	36
	Erreumatologiako Fe. Medikoa	4
	KSU-ko Fe. Medikoa	6
	Ospitaleko Larrialdietako Fe. Medikoa	28
	Urologiako Fe. Medikoa	13
	Analisi Klinikoetako Fe. Medikoa-Tek.	31
	Mikrob. eta Parasit. Fe. Medikoa-Tek.	11
	Immunologiako Fe. Medikoa-Teknikoa	2
Ospit. Erradiof. Fe. Medikoa-Teknikoa	3	
Ospitale-Farmaziako Fe. Teknikoa	6	
Psikologia Klinikoko Fe. Teknikoa	27	
<b>F. Espezialista Mediko-Teknikoa Guztira</b>		<b>720</b>
<b>Lehen Mailako Arretako F.E. Familia Medikua</b>	F.E. Familia Medikua - LMAT	58
<b>Lehen Mailako Arretako Pediatriako F.E.M.</b>	Pediatriako F.E. Medikoa - LMAT	35
	Liburuzaina	3
	Admin. eta Kudeak. Goi-Mailako Tek.	4
	Mantent. eta Instalazioetako Goi-Mailako Tek.	1
<b>Admin. eta Kudeaketako Goi-Mailako Tituluduna</b>	Euskararen Normalkuntzako Goi-Mailako Tek.	6
	Goi-Mailako Tek. Ekonomikoa	7
	Informatikako Goi-Mailako Tek.	20
	Goi-Mailako Tek. Juridikoa	3
	Antolaketako Goi-Mailako Tek.	6
	Preb. Segurtas. eta Higiene Goi-Mailako Tek.	5
<b>Admin. eta Kudeaketako Goi-Mailako Tituluduna Guztira</b>		<b>55</b>

2017ko azaroaren 27a, astelehena

KATEGORIAK	LANPOSTU FUNTZIONALA	GUZTIRA
Erizaina	Erizaina	567
Lan-Osasuneko Erizaina	Lan-Osasuneko Erizaina	6
Osasun Mentaleko Erizaina	Osasun Mentaleko Erizaina	43
Fisioterapeutak	Fisioterapeuta	36
Emagina	Emagina	22
Terapeuta Okupazionala	Terapeuta Okupazionala	6
Mantentze-Lanetako Erdi-Mailako Tituluduna	Mnt. eta Instalazioetako Erdi-Mailako Tek.	7
Gizarte-Langilea	Gizarte-Langilea	19
Goi-Mailako Teknikari Sanitarioa	Anatomia Patologikoko eta Zitologiako Tek.	23
	Audioprotesietako Tek.	2
	Dietetikako Tek.	2
	Dokumentazio Sanitarioko Tek.	12
	Laborategiko Tek.	80
	Erradiodiagnostikoko Tek.	46
	Erradioterapiako Tek.	3
<b>Goi-Mailako Teknikari Sanitarioa Guztira</b>		<b>168</b>
Administraria	Administraria	43
Goi-M. Tek. / Sukaldaria	Sukaldaria	17
Goi-M. Tek. / Informatikaria	Informatikako Tek.	15
Erizaintzako Teknikari Laguntzailea	Erizaintzako Laguntzailea	529
	Osasun Mentaleko Erizaintzako Laguntzailea	23
	Osasun Mentaleko Begiralea	12
<b>Erizaintzako Teknikari Laguntzaileak Guztira</b>		<b>564</b>
Farmaziako Teknikari Laguntzailea	Farmaziako Laguntzailea	23
Administrari Laguntzailea	Administrari Laguntzailea eta Erabiltzailearekiko Arreta	234
	Mantentze-Lanetako Langilea Igeltserotza	2
	Mantentze-Lanetako Langilea Zurgintza	4
	Mantentze-Lanetako Langilea Elektrizitatea	9
Goi-M. Teknikaria /Mantentze-Lanetako Langileak	Mantentze-Lanetako Langilea Instalazioak	28
	Mantentze-Lanetako Langilea Mekanika	3
	Mantentze-Lanetako Langilea Pintura	4
	Berogailuak Mantentzeko Langilea Iturgina	10
<b>Goi-M. Teknikaria /Mantentze-Lanetako Langileak Guztira</b>		<b>60</b>
Zeladorea	Zeladorea	126
Zerbitzuetako Langilea	Zerbitzuetako Langilea – Zerbitzu Orokorrak	180
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.004</b>